

ABDELKADER

LEHENTA

Gure trajeria honek
franko min eginen züan
Aljeriako gure gerla
xüxenka hartü bazüan.

Heroi bat maitagarria
hortako dügü haütatü
Horren arartez güdüka
denboran beita hürrüntü.

Abdelkader famatüa
düala bi mente zen bizi
Gazterik oldartü zeikün
frantses konkistaren aitzü.

Oroz gainetik müsülman
eskolatüa beitzen
Ez züan honartzen ahal
arrotzek goberna lezen.

Hamabost bat urtez üsü
güdükan erauntsi züan
Batean garaile bena
bestean ezin bizian.

Artetarik sü-etenak
frantsesekin hitzartüz
Armada bat egin züan
estatü bat antolatü.

Azkenean higatürik
güdüka züan baztertü
frantsesekin baketu zen
eta Sirian ohatü.

Damasen erauntsi züan
bere lanik maitenetan
Mistikan, filosofian
eta olerki goretan.

Behin hanko Kiristiak
üngürüala bildürik
Aterpetüko zütüan
dihadisten kolpetarik.

Bizi hau ederki beterik
Damasen ehortzirik
Haren errautsak dirade
sorleküalat ützülik.

LEHENTA

Gure trajeria honek
franko min eginen zuen,
Aljeriako gure gerra
zuzenka hartu bazuen.

Heroi bat maitagarria
horretarako dugu hautatu,
horren arartez guduka
denboran baita urrundu.

Abdelkader famatua
duela bi mende zen bizi.
Gazterik oldartu zitzaigun
frantses konkistaren aitzü.

Oroz gainetik musulman
eskolatua baitzen,
ez zuen onartzen ahal
arrotzek goberna lezaten.

Hamabost bat urtez usu
gudukan erauntsi zuen.
Batean garaile, baina
bestean ezin bizian.

Artetarik su-etenak
frantsesekin hitzartuz,
armada bat egin zuen.
estatu bat antolatu.

Azkenean, higaturik,
guduka zuen baztertu.
Frantsesekin baketu zen,
eta Sirian ohatu.

Damaskon erauntsi zuen
bere lanik maiteenetan:
mistikan, filosofian
eta olerki goretan.

Behin hango kristauak
ingurura bildurik,
aterpetuko zituen
jihadisten kolpeetarik.

Bizi hau ederki beterik,
Damaskon ehortzirik,
haren errautsak dira
sorlekurat itzulirik.

trajeria: pastoral

zuzenka: zuzenki

arartez: bitartez

aitzi: aurka

erauntsi: jardun

artetarik: noizean behin

ohatu: kokatu

erauntsi: jardun

SARGIA*Baionako eskola bat, 2019an.***Zohar**

M'Bappé izigarri azkar dük!

Omar

Benzema dük azkarrena!

Marta

Griezman beno azkarrago? Ez, batere!

Malika

Orotako hoberena Zidane izan da.

Marta

Ez, orotako hoberena Platini zen.

Ekipa bedera bildü behar lükeie,
algarren aitzî partiden egiteko.**Omar**

Bai, Müsülmanak besteer bürüz.

Marta

Aha, Müsülmanak, sü pizle haütü!

Omar

Zer erran dük, nahi düka zaparta bat?

Errejentsa

Zer da basart hau?

Maiana

Potikoak aharran, betiko ber gisan.

JoanaAlde batetik Arabak, bestetik Kiristiak,
pastoralean bezala.**Omar**Aita gurea ez dün araba,
kabila dün, jüstoki Zidane bezala.**Zuzendaria**Ez ditzagün oro nahas
fedean eta nazionean
Aski gerla, hoien eta
zernahiren izenean.Algarrekin bizitzeko
algar peretxa dezagün
Egiazko jentetarzüna
hortarik dadin ezagün.**SARGIA****Zohar**

M'Bappé izugarri azkar duk!

Omar

Benzema duk azkarrena!

Marta

Griezman baino azkarrago? Ez, batere!

Malika

Orotako hoberena Zidane izan da.

Marta

Ez, orotako hoberena Platini zen.

Ekipo bedera bildu behar lukete,
elkarren aitzî partiden egiteko.**Omar**

Bai, musulmanak besteei buruz.

Marta

Aha, musulmanak, su-pizle hautu!

Omar

Zer erran duk? Nahi duka zaparta bat?

Errejentsa

Zer da zalaparta hau?

Maiana

Mutikoak aharran, betiko ber gisan.

JoanaAlde batetik arabiarra, bestetik kristauak,
pastoralean bezala.**Omar**Aita gurea ez dun arabiarra,
kabiliarra dun, justuki Zidane bezala.**Zuzendaria**Ez ditzagun oro nahas
fedean eta nazioan.
Aski gerra horien eta
zernahiren izenean.Elkarrekin bizitzeko
elkar peretxa dezagun,
egiazko jendetasuna
horretarik dadin ezagun.**sargia:** sarrera**bedera:** bana
aitzi: aurka**-i buruz:** -en aurka**nahi duka?:** nahi al duk?**aharra:** liskar**peretxatu:** estimatu
jendetasun: gizatasun

Orai eskolan sar denak
hau da tenore xuxena
Historia bat dūgūn ikas
Abdelkader zenarena.

Hortan ageri da gerlak
zer ogen dūan egiten
Eta bake xuxen batek
zonbat abantail ekarten.

Orain eskolan sar denak,
hau da tenore zuzena.
Historia bat dugun ikas,
Abdelkader zenarena.

Horretan ageri da gerrak
zer hoben duen egiten,
eta bake zuzen batek
zenbat abantaila ekartzen.

dugun: dezagun

hoben: kalte

SATANERIA

Chauvin

Gobernua Türkekin
adiskide dugu.
Eta guk bake hori
ezinago higuin.

Dragon

Guduka bat pitz bedi
müsülmanen kontre
Ber denboran hon date
Charles dixen alt(h)e.

Chauvin

Aljeren sar gitean
piraten habian
Hatua prunki beita
hen ürretegian.

Dragon

Atsegin hartuko dü
komertzioak ere
Hortako deüs ez beita
gerla beno hobe.

SATANERIA

Chauvin

Gobernua turkoekin
adiskide dugu.
Eta guk bake hori
ezinago higuin.

Dragon

Guduka bat pitz bedi
musulmanen kontra.
Ber denboran, on dateke
Karlos X.aren alde.

Chauvin

Aljerren sar gaitzen
piraten habian,
hatua prontoki baita
haien urretegian.

Dragon

Atsegin hartuko du
komertzioak ere,
horretarako deus ez baita
gerra baino hobe.

dateke: izango da

hatu: fardel, zaku
prontoki: ugari

1. JELKALDIA*Oran hiria, 1830ean.***Muhieddin**

Zer berri düzü semea
so beltza horra deiküzü
Askazi bat hil zeiküa
kabalajea gaizkitü?

Abdelkader

Aita, berri txarrena dit
infidela hor dizügü
Frantziako armada batek
Aljer k(h)oditü diküzü.

Muhieddin

Kürütxada berri hori
güdükatü behar dügü
Gure fedea zaintü
eta herria salbatü.

Gerla saintüa pitz bedi
eta fededüna jeiki
Güziak ezpatarekin
frantsesaren aitzü jelki.

Zoaza lasterrik semea
guretarren argitzera
Kosi, lagun, aüzo, mitil
herritarren altxatzera.

Abdelkader

Zamari beltza hartzen dit
mezü horren hedatzeko
Bohor xuriz agian
garaitzaren ospatzeko.

1. JELKALDIA**Muhieddin**

Zer berri duzu, semea?
So beltza horra duzu.
Askazi bat hil zaigua?
Kabala gaizkitu?

Abdelkader

Aita, berri txarrena dut.
Infidela hor dugu.
Frantziako armada batek
Aljer koditu du.

Muhieddin

Gurutzada berri hori
gudukatu behar dugu.
Gure fedea zaindu,
eta herria salbatu.

Gerra santua pitz bedi,
eta fededuna jaiki.
Guztiak ezpatarekin
frantsesaren aitzü jalgi.

Zoaz lasterrik, semea,
guretarren argitzera,
kusi, lagun, auzo, mutil
herritarren altxatzera.

Abdelkader

Zamari beltza hartzen dut
mezu horren hedatzeko,
behor zuriz, agian,
garaitzaren ospatzeko.

horra duzu: dakarzu
askazi: ahaide
hil zaigua: hil al zaigu
kabala: abereak

koditu: mendean hartu

aitzi: aurka
jalgi: irten

kusi: lehengusu

zamari: zaldi

garaitza: garaipen

2. JELKALDIA*Oran hiria, 1832an.***Muhieddin**

Oraneko arnegatüer
zafraldi hon bat eman dügü
sker mila fededüna
garaipena zor deizügü.

Orai frantses armadari
oldartü behar beütügü
Beste afera bat date
fantasiarik ez da haizü.

Egiazko gerlan sartzeko
zaharregi niz prefosta
Gazte bat haüta dezagün
hari doala ene posta.

Si Kadur ben Ruila

Gure jakintsü debota
eta gidari xüxena
Gük bezain ontsa badakizü
nor dükegün hoberena.

Zure seme hori düzü
Abdelkader bihoztüna
Atzoko güdüka hortan
gure bistan hain zügüna.

Arren proposatzen deizüet
aintzindari har dezagün
Aita bezain debota beita
sültan izenta dezagün.

Abdelkader

Züen konfidantxa ederraz
eskerrak adiskideak
Armada manatüren dü
etxekiko nai fedekak.

Haatik sültan deitzea
koroa (khoha) pezüegia zait
Emir izena hartzen dü
hori bera bada zerbait.

Zohra (ama)

Bortüko arranoa hiz
fedearen güdaria
Eta güzien haütüz egün
fededünen gidaria.

Haurra benedikatzen hait
Allah Jinkoaren izenean
Eta süstenga gitzala
infidelen aitzinean.

2. JELKALDIA**Muhieddin**

Oraneko arnegatuei
zafraldi on bat eman diegu.
Esker mila, fededuna;
garaipena zor dizugu.

Orain frantses armadari
oldartu behar baitiogu,
beste afera bat dateke;
fantasiarik ez da haizu.

Egiazko gerran sartzeko
zaharregi naiz, prefosta.
Gazte bat hauta dezagun,
hari dihoakiola ene postua.

Si Kadur ben Ruila

Gure jakintsu debotoa
eta gidari zuzena,
guk bezain ontsa badakizu
nor dukegun hoberena.

Zure seme hori da,
Abdelkader bihoztuna.
Atzoko guduka horretan
gure bistan hain zuguna.

Arren proposatzen dizuet
aitzindari har dezagun.
Aita bezain debotoa baita,
sültan izenda dezagun.

Abdelkader

Zuen konfiantza ederraz,
eskerrak, adiskideak.
Armada manatuko dut,
atxikiko nau fedekak.

Haatik, sültan deitzea
koroa pisuegia zait,
Emir izena hartzen dut;
hori bera bada zerbait.

Zohra (ama)

Bortuko arranoa haiz,
fedearen gudaria.
Eta guztien hautuz, egun,
fededunen gidaria.

Haurra, bedeinkatzen haut
Allah jainkoaren izenean.
Eta sustenga gaitzala
infidelen aitzinean.

zafraldi: jipoi**dateke:** izango da
haizu: zilegi**prefosta:** noski, jakina**dukegu:** izango dugu**zugun:** ausart**manatu:** agindu**bortu:** mendi

3. JELKALDIA

Makta ibaiko gudua, 1835ean.

Abdelkader

Allah Jinko jaun bakoitza
zelü-lürren egilea
Zor deizügü fedea
baita gaineko elea.

Emagüzü goi argia
bihotzean zure süia
Eta jo aitzina lagünak
ohil dezagün etsaia!

3. JELKALDIA

Abdelkader

Allah jainko jaun bakoitza,
zeru-lurren egilea,
zor dizugu fedea
baita gaineko elea.

Emaguzu goi argia,
bihotzean zure sua.
Eta jo aitzina, lagunak,
ohil dezagun etsaia!

bakoitz: bakar

ohildu: egotzi, bota

4. JELKALDIA**Abdelkader**

Lilirik ederrena
kaparren artean
Hala zira maitea
neskatxen altean.

Baratzeak ützirik
ühaitz bazterrean
Basahüntza bezala
zabiltz(a) alorrean.

Kheira

Arrano gaztea düt
ene maite hori
Hegalez dabilazü
bortü goren gainti.

Ikusi baiko zeitan
bidealat etorri
Botxü baten hegitik
agur bat igorri.

Abdelkader

Ene gazela beltza
zoin ziren ederra
Jinik ürrüperatik
ene xarmatzera.

Eta ni zuregana
mendien behera
Jinko Jauna deitürik
benedikatzer.

Kheira

Orai biak bat gira
fedezko egia
Eta zaintzale dügü
jaunaren begia.

Hargatik üt dezagün
hürrün ordokia
Gustüan beitabila
hortik errumia.

4. JELKALDIA**Abdelkader**

Lilirik ederrena
kaparren artean.
Hala zara, maitea,
neskatxen aldean.

Baratzeak utzirik
uhaitz bazterrean,
basahuntza bezala
zabiltza alorrean.

Kheira

Arrano gaztea da,
ene maite hori.
Hegalez dabil
bortu goren gainti.

Ikusi baiko, zitzaidan
biderat etorri.
Botxu baten hegitik,
agur bat igorri.

Abdelkader

Ene gazela beltza,
zein zaren ederra!
Jinik urruperatik
ene xarmatzera.

Eta ni zuregana
mendietan behera.
Jainko Jauna deiturik,
bedeinkatzera.

Kheira

Orain biak bat gara,
fedezko egia.
Eta zaintzaile dugu
jaunaren begia.

Hargatik, utz dezagun
urrun ordokia,
gustuan baitabil
hortik errumia.

kapar: sasi**baratze:** lorategi
uhaitz: ibai**bortu:** mendi**baiko:** baino ez**botxu:** harkaitz**jin:** etorri
urrupera: erribera**errumi:** kristau

KANTA
Andere esposari

Boztario zuri, andre gaztea,
gaur erregiña beitzira
Zure loria llabürra goza,
ez goizegi erretira.

Jente güzia hoinetan düzü,
ez jakin nontik ohora
Bego biharko egün arrunten
eta lanen arrenküra.

Amodioa lagün ederra,
libertatean delarik
Zorihon hori balin badüzü,
eskerrak eman Jaunari.

Biak etxeki zitzela lüzaz
mündü hontan algarreki
Egün güziez algarri berma,
et(a) algar etxeki beti.

Ele goxorik ez dizezügü,
senarrak erranen deitzü
Izar maitea, lili ezitia,
ürzo xuri ederrena.

Eta egiazki hori güzia
mementoan pentsü dizü
Geroan ere pentsa dezala,
hori düzü beharrena.

KANTA
Andere esposari

Bozkario zuri, andre gaztea,
gaur erregina baitzara.
Zure loria laburra goza,
ez goizegi erretira.

Jende guztia oinetan duzu,
ez jakin nondik ohorea.
Bego biharko egun arrunten
eta lanen arrangura.

Amodioa, lagun ederra
libertatean delarik.
Zorion hori baldin baduzu,
eskerrak eman Jaunari.

Biak atxiki zaitzatela luzaz
mundu honetan elkarrekin.
Egun guztiez elkarri berma,
eta elkar atxiki beti.

Ele gozorik ez dukezu;
senarrak erranen dizu:
izar maitea, lili ezitia,
uso zuri ederrena.

Eta egiazki hori guztia
momentuan pentsatu du.
Geroan ere pentsa dezala;
hori da beharrena.

arrangura: kezka

dukezu: izango duzu

beharren: beharrezko

5. JELKALDIA**Bugeaud**

Abdelkader gazte horrek
debrüen dohainak ditizü
Oraneko eskualdean
lanak emanen dizkützü.

Clauzel

Soldado gütiegi dügü
kartielaren betatzeko
Baita lekü baliosenen
behar bezala zaintzeko.

Bugeaud

Ez ote gүнüke hobe
horrekila mintzatzea
Hütsarte baten ükeiteko
tratü baten hitzartzea?

Clauzel

Oran aldean baketüz
esküak libro güntüke
Aljerren azkartüz geroz
Kezentinan sar gintake.

Ekialdea hartü bait
ekisargiaren aldi
Tratü bühürri batekin
emirra dezagün k(h)odi.

Molé

Zepo hortan ez otoi sar
zola gabeko pützüan
Holako politikarik
ez dügü nahi Frantzian.

Gobernüaren xedea
jakin ezazüe klarki
Portüen etxekitzea
bilatzen dügü bakoizki.

Itsasoan komertzioa
segürtatü behar dügü
Eta lürralde barnean
adiskide bat txerkatü.

Bugeaud

Politika zühürra zait
ametsa mügatzen deikü
Emirrarekin ahalaz
tratü hon bat behar dügü.

Molé

Laboraria beitzira
lür geinatzen badakizü
Tratü horren hitzartzea
zuri arren horra zaizü.

5. JELKALDIA**Bugeaud**

Abdelkader gazte horrek
deabruen dohainak ditu.
Oraneko eskualdean
lanak emanen ditu.

Clauzel

Soldadu gutxiegi dugu
kartierraren betetzeko,
baita leku baliotsuenen
behar bezala zaintzeko.

Bugeaud

Ez ote genuke hobe
horrekin mintzatzea?
Hutsarte baten ukateko
tratu baten hitzartzea?

Clauzel

Oran aldean baketuz,
eskuak libre genituzke.
Aljerren azkartuz geroz,
Konstantinan sar gintezke.

Ekialdea hartu baiko
sartaldearen aldi.
Tratu bihurri batekin
emirra dezagun kodi.

Molé

Zepo horretan ez, otoi, sar;
zola gabeko putzuan.
Horrelako politikarik
ez dugu nahi Frantzian.

Gobernuaren xedea
jakin ezazue klarki.
Portuen atxikitzea
bilatzen dugu bakarrik.

Itsasoan komertzioa
segurtatu behar dugu.
Eta lürralde barnean
adiskide bat xerkatu.

Bugeaud

Politika zuhurra zait.
Ametsa mugatzen digu.
Emirrarekin, ahalaz,
tratu on bat behar dugu.

Molé

Laboraria baitzara,
lür zaintzen badakizu.
Tratu horren hitzartzea
zuri, arren, horra zaizu.

kartier: eskualde**azkartu:** indartu**baiko:** baino ez
sartalde: mendebalde**koditu:** egotzi, bota**zola:** hondo**xerkatu:** bilatu**ahalaz:** ahal den neurrian**arren:** bada
horra izan: etorri

6. JELKALDIA*Tafna ibiaren ertza, 1837an.***Bugeaud**

Gerla horrek ez dü honik
ez züen ez eta gure
Bakea finka dezagün
bientzat beitate hobe.

Abdelkader

Müsülmanak algarrekin
Kiristiak beren artean
Bakoitza gure aldetik
bi taldeak egon gitean (gitin).

Bugeaud

Hori bera nahi dügü
tratü xüxen bat hitzartü
Bien bereiz edeiteko
Aljerian bada lekü.

Portüetako komertzioa
frantseser aski ziküzü
Aljeria barnearen
gütiziarik ez dizügü.

Hau gure proposamena
guri portüen jabegoa
Zuri Aljer altealano
lüraldeko nausigoa.

Abdelkader

Ontsa konprenitzen badüt
enetzat ekisargia
Hots Aljeriaren erdia
zertako ez jeikigia?

Bugeaud

Jeikigia ez dizügü
Türken esküan dagozü
Kezentina beita giltza
han zinez azkar dütüzü.

Abdelkader

Aljeriaren erdia
beregain üzten badeikü
Tratü hori sinatüren
eta beteko dizügü.

6. JELKALDIA**Bugeaud**

Gerra horrek ez du onik,
ez zuen, ez eta gure.
Bakea finka dezagun,
bientzat baitateke hobe.

Abdelkader

Musulmanak elkarrekin,
kristauak beren artean.
Bakoitza gure aldetik
bi taldeak egon gaitezen.

Bugeaud

Hori bera nahi dugu.
Tratu zuzen bat hitzartu.
Bien bereiz edeteko
Aljerian bada leku.

Portuetako komertzioa
frantsesei aski zaigu.
Aljeria barnearen
gutiziarik ez dugu.

Hau gure proposamena:
guri portuen jabegoa,
zuri Aljer alderaino
lüraldeko nagusigoa.

Abdelkader

Ontsa konprenitzen badut
enetzat sartaldea,
hots, Aljeriaren erdia.
Zertako ez ekialdea?

Bugeaud

Ekialdea ez dugu.
Turkoen eskuan dago.
Konstantina baita giltza,
han zinez azkar dira.

Abdelkader

Aljeriaren erdia
beregain uzten badigu,
tratu hori sinatuko
eta beteko dugu.

zuen: zuentzat
gure: guretzat
dateke: izango da

eden: kabitü

zertako: zergatik

azkar: indartsu

KANTA
Nazio berri bat

Biderik ez denean, ibiliz egizü
Herririk ez ginizün, asmatü dizügü
Aljeriarik ez beitzen, borrokan da sortü
Abdelkader aita dü, dezagün ospatü.

Ohore zuri ere, jeneral handia
Frantsesen bürüzagi azker et(a) argia
Etsai gogor izana, gaur adiskidea
Hitzarmen honi esker, hor dügü bakea.

Lüzaz iraün dezala güzien honetan
Anple bizi gitean üsatü lanetan
Züek itsasaldean, eta gü lürretan
Jinkoak zain gitzala behar-ordüetan.

Aljeriar herritarrak, aberri librean
Aharrak ahatzirik, oro bil gitean
Erresuma bat altxa, nazione bat egin
Hontarzünak emenda beti algarrekin.

KANTA
Nazio berri bat

Biderik ez denean, ibiliz egizu.
Herririk ez genuen, asmatu dugu.
Aljeriarik ez baitzen, borrokan da sortu.
Abdelkader aita du, dezagun ospatu.

Ohore zuri ere, jeneral handia,
frantsesen buruzagi azkar eta argia.
Etsai gogor izana, gaur adiskidea.
Hitzarmen honi esker, hor dugu bakea.

Luzaz iraun dezala guztien onetan,
Anple bizi gaitezen usatu lanetan.
Zuek itsasaldean, eta gu lurretan.
Jainkoak zain gaitzala behar-orduetan.

Aljeriar herritarrak, aberri librean,
aharrak ahantzirik, oro bil gaitezen.
Erresuma bat altxa, nazio bat egin,
ondasunak emenda, beti elkarrekin.

anple: lasai

aharra: liskar

emendatu: gehitu

SATANERIA**Magda**

Frantsesak auherturik
ekürü dirade
Berriz bulka ditzagün
borrokaren alde.

Lena

Abdelkader horrekin
tratü bat eginik
Ezin igitüz diaude
zankoa loturik.

Magda

Bego lo mementoko
aldia jinen dün
Beste gaintialat so(e)gin
Kezentina haurdün.

Lena

Arrazu dün lagüna
jo arren aitzina
Konkista osoalako
bortxa Kezentina!

SATANERIA**Magda**

Frantsesak, alferturik,
ekuru dira.
Berriz bulka ditzagun
borrokaren alde.

Lena

Abdelkader horrekin
tratu bat eginik,
ezin higituz daude,
zangoa loturik.

Magda

Bego lo momentuz;
aldia jinen dun.
Beste gaindirat so egin:
Konstantina haurdun.

Lena

Arrazoi dun, laguna;
jo, arren, aitzina.
Konkista osorako,
bortxa Konstantina!

ekuru: geldi
bulkatu: bultzatu

higitu: mugitu

jin: etorri
gaindi: alde

arren: bada

7. JELKALDIA*Oran hiria, 1839an.***Kheira**

Kezentina erori da
frantsesen esküetara
Gerla saintüan sartzeko
zeren haidürü zira?

Abdelkader

Pazentzia llabürreko
fededünak ziraie
Tafnako tratüaz geroztik
ertxoarazi naizüe.

Noiz ikusiko düzüe
horren beharra bazela?
Estatü bat eraiki dü
ezin zaitean bestela.

Arma fabrikak hor daude
armadak ere püntüan
Goatzen arren gerlatat
Jinkoaren gomendüan.

Kheira

Orai ohartzen gütüzü
zertako zinen ekürü
Jinkoak etxeki zütü
memento honen haidürü.

Abdelkader

Haidürü bai, ez ekürü
memento honen prestatzen
Eta gerla saintü hontan
Jinkoak gütü lagüntzen.

Kheira

Aljeria güzia
libratü behar dizügü
Eta hor gure fedea
gidaritako finkatü.

Abdelkader

Arabiar eta müsülman
erresuma bat eraiki
Mahomet profetaren
dei garbiari jarraiki.

7. JELKALDIA**Kheira**

Konstantina erori da
frantsesen esküetara,
Gerra santuan sartzeko
zeren aiduru zara?

Abdelkader

Pazientzia laburreko
fededunak zarete.
Tafnako tratüaz geroztik,
ertzoarazi nauzue.

Noiz ikusiko duzue
horren beharra bazela?
Estatu bat eraiki dü;
ezin zitekeen bestela.

Arma fabrikak hor daude,
armadak ere puntuan.
Goazen, arren, gerrarat
Jainkoaren gomendioan.

Kheira

Orain ohartzen gara
zertako zinen ekuru.
Jainkoak atxiki zaitu,
momentu honen aiduru.

Abdelkader

Aiduru bai, ez ekuru,
momentu honen prestatzen.
Eta gerra santu honetan
Jainkoak gaitu laguntzen.

Kheira

Aljeria guztia
libratu behar dugu.
Eta hor gure fedea
gidaritako finkatu.

Abdelkader

Arabiar eta musulman
erresuma bat eraiki,
Mahomet profetaren
dei garbiari jarraiki.

aiduru: zain**ertzoarazi:** zorarazi**arren:** bada
gomendioan: ardurapean**zertako:** zergatik
ekuru: geldi**aiduru:** zain**gidaritako:** gidaritzat**Mahomet:** Mahoma

8. JELKALDIA

Abdelkader

Erdizka jokatzea
denentako zoin okerra
Bake faltsü horrek egün
hunki behar dü bazterra.

Goatzen arren fededünak
infidelen ohiltzera
Frantses hoién eskü petik
aberriaren libratzera.

8. JELKALDIA

Abdelkader

Erdizka jokatzea
denendako zein okerra!
Bake faltsu horrek egun
ukitu behar du bazterra.

Goazen, arren, fededunak
infidelen ohiltzera,
frantses horien esku petik
aberriaren libratzera.

bazter: eskualde

arren: bada
ohildu: egotzi

9. JELKALDIA**Bu-Maza**

Abdelkader handia
bürüzagi hona
Honki jin ziradeala.
Warsenis bortüan

Zure lürren erditan
eta bihotzean
Heben goza bakea
eta zorihona.

Abdelkader

Jinkoa bera dügü
handizki handia
Gure handitarzüna
bakoizki fedea.

Jauna denek dezagün
apalik adora
Eta haren legea
bihotzez ohora.

Infidela sartü da
gure herrilano
Erdi Kiristi bena
erdia pagano.

Lehena konkürrenta
bestea etsaia
Bi-bien güdükatzera
gitean iseia.

Bu-Maza

Gure fideltarzüna
zaizü ezagüna
Manatzen ahal düzü
nahi dükezüna.

Zureki düzü heben
popülü zügüna
Bertan entzünen düzü
horren oihartzüna.

9. JELKALDIA**Bu-Maza**

Abdelkader handia,
buruzagi ona,
ongi jin zarela
Ouarsenis bortuan.

Zure lurren erdian
eta bihotzean,
hemen goza bakea
eta zoriona.

Abdelkader

Jainkoa bera dugu
handizki handia.
Gure handitasuna,
bakarrik fedea.

Jauna denek dezagun
apalik adora,
eta Haren legea
bihotzez ohora.

Infidela sartu da
gure herriraino.
Erdia kristau, baina
erdia pagano.

Lehena lehiakidea,
bestea etsaia.
Bi-bien gudukatzera
gaitezen saiatu.

Bu-Maza

Gure fideltasuna
zaizu ezaguna.
Manatzen ahal duzu
nahi dukezuna.

Zurekin duzu hemen
populu zuguna.
Bertan entzunen duzu
horren oihartzuna.

bortu: mendi**manatu:** agindu**zugun:** ausart, bihozko

KANTA**Artzainen kantorea**

Arbasoak bezala
menteren mentetan
Bakean gaude heben
gure mendietan.

Gure kabaler esker
bizitzen girare
Aberats izan gabe
hein bat irus ere.

Arrapika

Hur et(a) aire garbien
ütürri segürra
Bardin ezpiritüen
geztera zühürta.

Bortúa bizi bedi
denen honealako
Eta lehen-lehenik
bere haurrentako.

Bena zer agitzen da
peko mündü hortan?
Indar gogor elibat
jeiki dira builtan.

Eta nabusitzera
jin zaizkü friuntan
Ürgüllü, diharü (e)ta
poterearen püntan.

Pe hortan erreüs dira
eta beti presan
Heben hatsa hartzen da
maratoiko gisan.

Üharte bat bezala
mündü nahasian
Bortúa zain dezagün
gure dretékilan.

KANTA**Artzainen kantorea**

Arbasoak bezala,
menderen mendetan
bakean gaude hemen
gure mendietan.

Gure kabalei esker
bizitzen gara,
aberats izan gabe
hein bat uros ere.

Arrapika

Ur eta aire garbien
iturri segurua.
Berdin, ezpirituen
geztera zuhurra.

Bortua bizi bedi
denen onerako,
eta lehen-lehenik
bere haurrentako.

Baina zer agitzen da
peko mundu horretan?
Indar gogor elibat
jaiki dira builtan.

Eta nagusitzera
jin zaizkigu friuntan,
urguilu, diru eta
boterearen püntan.

Pe horretan erreus dira,
eta beti presan.
Hemen hatsa hartzen da
maratoiko gisan.

Üharte bat bezala
mundu nahasian,
bortua zain dezagun
gure eskubideekin.

kabala: abere**uros:** zoriontsu**berdin:** hala ere
geztera: zorrotzari**agitu:** gertatu
peko: beheko
elibat: batzuk
bultan: oldarrean**friuntan:** ziztu bizian**pe:** behealde
erreus: akastun**bortu:** mendi

10. JELKALDIA**Victorine**

Armadak nekez harturik
eta gük nekez honturik
Hebenko lür hoberenak
gaur dira mehatxaturik.

Europatik jin ginen
gubernuez pusaturik
Maleta txipi batekin
eskü hütsez aberatsik.

Marianne

Hebenko lürra larre zen
harritsü eta kaparstoi
Hoberenean hurtoka
ihidoi eta lohidoi.

Elgea labaki dügü
pikotxez eta haitzurrez
Gizonekilan eraiki
zanko, beso, bizkarrez.

Maria

Orai lür hau gurea da
gure izerdiz bustia
Ebatsi nahi deiküe
gük emendatü güzia.

Frantziak lagünt gitzala
soldadoa süsta dezala
Eta leinü basa horik
igor jin diren bezala.

Aixa

Mitidjako lür hau ez zen
zük erran bezain ützia
Beste kartieletan ere
lür honak hartü deizkützüe.

Fatima

Orai mendian bizi behar
bazterturik, gabeturik
Laster Emirrari esker
behar ere libraturik!

Marguerite

Gure lürra zain dezagün
jente ñapür hoiien aitz
Abdelkader gure armek
laster dezela ehortzi!

10. JELKALDIA**Victorine**

Armadak nekez harturik,
eta gük nekez ondurik,
hemengo lur hoberenak
gaur dira mehatxaturik.

Europatik jin ginen
gubernuez pusaturik,
maleta txiki batekin
esku hutsez aberatsik.

Marianne

Hemengo lurra larre zen,
harritsu eta kaparstoi.
Hoberenean urtoki,
idoi eta lohitegi.

Elgea labakitu dugu
pikotxez eta aitzurrez.
Gizonekin eraiki
zango, beso, bizkarrez.

Maria

Orain lur hau gurea da,
gure izerdiz bustia.
Ebatsi nahi digute
gük emendatu guztia.

Frantziak lagun gaitzala,
soldadua susta dezala,
eta leinu basa horiek
igor jin diren bezala.

Aixa

Mitidjako lur hau ez zen
zuk erran bezain utzia.
Beste kartierretan ere
lur onak hartu dizkiguzue.

Fatima

Orain mendian bizi behar
bazterturik, gabeturik.
Laster emirrari esker
behar ere libraturik!

Marguerite

Gure lurra zain dezagun
jende lapur horien aitz.
Abdelkader gure armek
laster dezatela ehortzi!

pusatu: bultzatu**kaparstoi:** sasitza
urtoki: zingira
idoi: zingira**elge:** landa
labakitu: goldatu, lurra landu**ebatsi:** lapurtu
emendatu: pilatu, metatu**igorri:** bidali
jin: etorri**kartier:** eskualde**behar ere:** zorionez**aitzi:** aurka

11. JELKALDIA*Parisen, 1840a.***Bugeaud**

Abdelkader ñapür hori
aizea bezala dabila
Indarrak galtzen dütügü
horren haidü(rü) edo bila.

Oküpazio mügatü hoi
amets okerra ginizün
Aitortü behar deizüt
hortan tronpatü nündüzün.

Oraiko gisan aritzeak
ez dizü pena merexi
Haütüa sinple dizügü
dena hartü ala ützi.

Erregea

Nik ere konkista hoi
aitzinekoek hasirik
Etxeki nahi nikezün
portüetara mügaturik.

Orai ageri da klarki
barneko zabalünetik
Emirrak joko gütüala
nahi dükean aldetik.

Arren deliberatzen dit
osoki konkistatzea
Eta manatzen deizüt
hortako planen prestatzea.

Bugeaud

Ez gitean egon haidürü
zerratürük portü hoitan
Ez eta saldo ttipika
barreiatürük orotan.

Saldo gotor elibat
leküka planta ditzagün
Eta hortik talde zalheak
igor üsü exker-esküin.

Abdelkaderren alt(h)eko
herriak arpilla ditzten
Bihiz eta kabalajez
agortürük ützi dezen.

Erregea

Xede zühürta zitazü
ene baimena badüzü
Eta gobernüak armada
zinez azkartuko deizü.

11. JELKALDIA**Bugeaud**

Abdelkader lapur hori
haizea bezala dabila?
Indarrak galtzen ditugu
horren aiduru edo bila.

Okupazio mugatu hori
amets okerra zen.
Aitortu behar dut:
horretan tronpatu nintzen.

Oraingo gisan aritzeak
ez du pena merezi.
Hautua sinple da:
dena hartu ala utzi.

Erregea

Nik ere konkista hori,
aitzinekoek hasirik,
atxiki nahi nuen
portuetara mugaturik.

Orain ageri da klarki
barneko zabalunetik
emirrak joko gaituela
nahi duen aldetik.

Arren, deliberatzen dut
osoki konkistatzea.
Eta manatzen dizut
horretako planen prestatzea.

Bugeaud

Ez gaitezen egon aiduru
zerraturük portu horietan,
ez eta saldo txikika
barreiaturük orotan.

Saldo gotor elibat
lekuka planta ditzagun,
eta hortik talde zaluak
igor usu ezker-eskuin.

Abdelkaderren aldeko
herriak arpila ditzaten.
Bihiz eta kabalaz
agorturük utzi ditzaten.

Erregea

Xede zuhurra zait;
ene baimena baduzu.
Eta gobernuak armada
zinez azkartuko du.

dabila: al dabil**aiduru:** zain**tronpatu:** erratu**arren:** bada
deliberatu: erabaki
manatu: agindu**aiduru:** zain**elibat:** bartzuk
plantatu: antolatu
zalu: arin
usu: sarritan**kabala:** abere**azkartu:** indartu

KANTA
Emazteen kantorea

Bakean gaüza güti
 eta gerlan deüs ez
 Gure bizitze latza
 kontatü beharrez.

Bihotza gogortürik
 eta begia nigarrez
 Kantatzera goatzan,
 ez egon herabez.

Ene haur denboratik
 berriki jelkirik
 Aita saldü nündüzün
 senar zohi bati.

Beste bi emazteak
 nitizün bekaizti
 Et(a) amaginarreba
 beti gibeletik.

Barnen eta kanpoan
 paüsü güti dügü
 Egürra eta hura
 hürüntik behar bildü.

Etxeko lanak egin,
 xaharrak artatü
 Haur hanitx eraiki,
 jauna zerbütatü.

Eta laster etsaia
 heltüren ziküzü
 Emazte (e)ta haurrei da
 lehenik lotüko.

Gizonak bezala gü
 haier bühürtüko
 Irabazten badügü,
 zer sari dükegü?

Bizkarra zabal dizü
 errelijioneak
 Gizonek zonbat gezür
 haren izenean.

Nork ezagützen düke
 libürü saintüa?
 Noiz dio emaztea
 ez dela jentea?

KANTA
Emazteen kantorea

Bakean gauza gutxi,
 eta gerran deus ez.
 Gure bizitza latza
 kontatu beharrez.

Bihotza gogorturik
 eta begia negarrez.
 Kantatzera goazen,
 ez egon herabez.

Ene haur denboratik
 berriki jalgirik,
 aita, saldu ninduzun
 senar zori bati.

Beste bi emazteak
 ziren bekaizti,
 eta amaginarreba
 beti gibeletik.

Barnean eta kanpoan
 pausu gutxi dugu.
 Egurra eta ura
 urrundik behar bildu.

Etxeko lanak egin,
 zaharrak artatu,
 haur anitz eraiki,
 jauna zerbitzatu.

Eta laster etsaia
 helduko zaigu.
 Emazte eta haurrei da
 lehenik lotuko.

Gizonak bezala gu
 haiei bihurtuko.
 Irabazten badugu,
 zer sari dukegu?

Bizkarra zabal du
 erlijioak.
 Gizonek zenbat gezur
 haren izenean.

Nork ezagutzen duke
 liburu santua?
 Noiz dio emaztea
 ez dela jentea?

herabez: lotsaz

zori: heldu

gibeletik: atzetik

pausu: atsedan

eraiki: hazi

bihurtu: aurre egin

dukegu: izango dugu

12. JELKALDIA

Abdelkaderren kanpalekua, 1843an.

Aumale

Hor dizügü azkenean
etsaiaren kapitala!
Har dezakegü segidan
jo aitzina berehala!

Lauhazka trauka dezagün
zaindaria züntzürdoka
Bürüzagiak atzaman
eta denak aitzintoka!

12. JELKALDIA

Aumale

Hor da azkenean
etsaiaren kapitala!
Har dezakegu segidan;
jo aitzina berehala!

Lauhazka trauka dezagun;
zaindaria zentzorda.
Burusagiak atzeman,
eta denak aitzintoka!

traukatu: zeharkatu

zentzordatu:

konorte gabe utzi

aitzintoka: aurrean bildurik

13. JELKALDIA*Orain hirian.***Abdelkader**

Hiribürüa galdürük
ez nüzü net ehortzia
Bena behera joanik
hamarretarik zortzia.

Arren orai baratzen zait
berriz gerrillari lotzea
Hastapenetan bezala
miserableki aritzea.

Kheira

Ürxapalak bezala
ez otoi apal begia
Denek deitüko zütüe
kaparstoiko erregea.

Zü arranoa zirade
bortüko erregea
Ordokian galdü düzü
ez beita zure leküa.

Hegalpean harrezazü
Dahra bortüko hegia
Han düzü gotorleküa
botxü gainetan habia.

Abdelkader

Frantsesak ere jagoiti
han ohatürük dütügü
Eta kanu hanitxekin
gainetan gure haidürü.

Kheira

Ordüan elkibidea
herri aüzoan zünüke
Marokealat igaitea
gordalekü baten eske.

Abdelkader

Aterpea beno haboro
lagüngo bat azkarra
Sültanak zor ditadazü
müsülmana balin bada.

Horren bila goatzen arren
azken güdari honekin
Güdükan üztar gitean
Marokeko armadekin.

13. JELKALDIA**Abdelkader**

Hiriburua galdurik
ez nauzu net ehortzia,
baina behera joanik
hamarretarik zortzia.

Arren, orain baratzen zait
berriz gerrillari lotzea,
hastapenetan bezala
miserableki aritzea.

Kheira

Usapalak bezala
ez, otoi, apal begia.
Denek deituko zaituzte
kaparzoiko erregea.

Zu arranoa zara,
bortuko erregea.
Ordokian galdu duzu,
ez baita zure lekua.

Hegalpean har ezazu
Dahra bortuko hegia.
Han duzu gotorlekua,
botxu gainetan habia.

Abdelkader

Frantsesak ere jagoitik
han ohaturik ditugu,
eta kanoi anitzekin
gainetan gure aiduru.

Kheira

Orduan, ilkibidea
herri auzoan zenuke;
Marokorat iragatea
gordeleku baten eske.

Abdelkader

Aterpea baino haboro
lagungo bat azkarra.
Sultanak zor dit,
musulmana baldin bada.

Horren bila goazen, arren,
azken gudari onekin.
Gudukan uztar gaitezen
Marokoko armadekin.

net: zeharo**arren:** bada
baratu: geratu**kaparztoi:** sasitza**bortu:** mendi**botxu:** harkaitz**jagoitik:** dagoeneko**aiduru:** zain**ilkibide:** irtenbide**haboro:** gehiago
lagungoa: laguntza
azkar: sendo, kementsu**arren:** bada

14. JELKALDIA*Islyko gudua, 1844an.***Sültana**

Zer ari zira Maroken
ohoina bezala sarturik
Hobe zünüke zentzatürrik
eta gibel ütülirik.

Gure bi erresumak
adiskide beitziren
Nolaz konpreni dirogu
zertara hola jin ziren?

Bugeaud

Badakizü hanitx ontsa
heben zertaz dügün kezka
Abdelkader zaintzen düzü
horra nüzü horren xerka.

Sültana

Müsülmanen artean
algar etxekitzen dügü
Bereziki aüzokoa
lagüntü behar dizügü.

Bugeaud

Hola denaz geroztik
goatzen Frantsesak aitzina
Abdelkaderren goitzeko
dügün arren bete zina.

14. JELKALDIA**Sultana**

Zer ari zara Marokon
ohoina bezala sarturik?
Hobe zenuke zentzaturik
eta gibel itzulirik.

Gure bi erresumak
adiskide baitziren,
nolaz konpreni dirogu
zertara honela jin zaren?

Bugeaud

Badakizu anitz ontsa
hemen zertaz dugun kezka.
Abdelkader zaintzen duzu.
Horra naiz horren xerka.

Sultana

Musulmanen artean
elkar atxikitzen dugu.
Bereziki auzokoa
lagundu behar dugu.

Bugeaud

Horrela denez geroztik,
goazen frantsesak aitzina.
Abdelkaderren goitzeko
dugun, arren, bete zina.

ohoin: lapur**gibel:** atzera**dirogu:** dezakegu**jin:** etorri**zertaz:** zergatik**horra izan:** etorri**xerka:** bila**goitu:** garaitu**dugun:** dezagun**arren:** bada

**KANTA
Garaipena**

Bitoria, garaipena
Alkoholik azkarrena
Podiomeko gain-gainean
Ohorearen tinian.

Egün herakitzen dü
frantsesen zainetan
Etsaia hedailo dago
zaldien hoinetan.

Abdelkader ihesi
bere kaparretan
Marokeko sultana
bere haremetan.

Arren ohore zuri,
Bugeaud marexala
Erregeren mitila,
frantsesen makila.

Zuri esker Afrika
zabalik dizüğü
Lehenik Aljeria,
besteak haidürü.

Guri lür hoberenak,
enplegü sotilak
Lagüntzale merkeak
eta neskatilak.

Ber denboran zerbütü
eginen deiegü
Lana gehitüz
eta zibilisatüz.

**KANTA
Garaipena**

Bitoria, garaipena
alkoholik azkarrena,
podiumeko gain-gainean
ohorearen tinian.

Egun irakiten du
frantsesen zainetan.
Etsaia hedailo dago
zaldien oinetan.

Abdelkader ihesi
bere kaparretan.
Marokoko sultana
bere haremetan.

Arren, ohore zuri,
Bugeaud marexala,
Erregeren mitila,
frantsesen makila.

Zuri esker Afrika
zabalik dugu.
Lehenik Aljeria;
besteak aiduru.

Guri lur hoberenak,
enplegu sotilak,
laguntzaile merkeak
eta neskatilak.

Ber denboran zerbitzu
eginen diegu
lana gehituz
eta zibilizatuz.

bitoria: garaipen**tini:** tontor**hedailo:** luze-luze lur gainean**kapar:** sasitza**marexal:** mariskal**aiduru:** zain

15. JELKALDIA*Marokoko muga, 1847an.***Abdelkader**

Denetarik hertsaturik
ezin igitüa dügü
Frantsesekila baketüz
sültana hürrüntü zaigü.

Kheira

Hürrüntü eta etsaitü
gure bila dabilazü
diskide ohi bat
etsai gogorrena düzü.

Abdelkader

Güdari haboroxeak
galdürrik ditizügü
Hanitx gerlan hilik eta
besteak nonbait ezkapü.

Kheira

Hoberena ez ote da
gure mügen aitortzea
Ezinbeste beltzanean
zorteari plegatzea?

Lamoricière jenerala
heben gainti dabilazü
Zaldün leiala beita
nobleki hartüko gitizü.

Lamoricière

Abdelkader güdaria
zinez etsai bihoztoia
Indar nausi bati burüz
ezkapi zaizü bito(r)ia.

Ohorezki erauntsirik
ohorezki bara zite
Ezin dügüna ezin da
beraz armak isil bite.

Abdelkader

Emaztearen ahotik
Jinko Jauna mintzatü zait
Armen betiko üztea
düala güti manatü deit.

Arren nahi nüdükezü
Aljeriatik hürrüntü
Fedearen zerbütükü
Damasko saintan ohatü.

15. JELKALDIA**Abdelkader**

Denetarik hertsaturik,
ezin higitua dugu.
Frantsesekin baketuz,
sultana urrundü zaigu.

Kheira

Urrundu eta etsaitu;
gure bila dabil.
Adiskide ohi bat
etsai gogorrena duzu.

Abdelkader

Gudari haboroxeak
galdurik ditugu.
Anitz gerran hilik, eta
besteak nonbait eskapu.

Kheira

Hoberena ez ote da
gure mugen aitortzea?
Ezinbeste beltzanean
zorteari plegatzea?

Lamoricière jenerala
hemen gainti dabil,
zaldun leiala baita
nobleki hartuko gaitu.

Lamoricière

Abdelkader gudaria,
zinez etsai bihoztoia,
indar nagusi bati buruz
eskapatu zaizu bitoria.

Ohorezki erauntsirik,
ohorezki bara zaitez.
Ezin duguna ezin da;
beraz, armak isil bitez.

Abdelkader

Emaztearen ahotik
Jainko Jauna mintzatu zait.
Armen betiko uztea
duela gutxi manatu dit.

Arren, nahi nuke
Aljeriatik urrundü,
fedearen zerbitzuko
Damasko santuan ohatu.

hertsatu: estutu
higitu: mugitu

haboroxe: gehien

eskapu: ihesi

gainti: zehar

bitoria: garaipen

erauntsi: jardun
baratu: geratu

manatu: agindu

arren: bada

ohatu: kokatu

Lamorière

Frantziako gobernüari
mezü hau diot igorriko
Zü libroki Sirialat
igaraitera üzteko.

Lamorière

Frantziako Gobernuari
mezu hau diot igorriko,
zu libreki Siriarat
iragatera uzteko.

16. JELKALDIA**Abdelkader**

Lamoricièrek eman hitza
Aumalek baieztaturik
Gobernua jan du eta
heben gütü zerratürük.

Kheira

Paseatzera tziauri
aire hona har ezazu
Neurastenia beltz hori
baztertü behar dizügü.

Abdelkader

Beti ber üngürüa da
bena bardin balio dü
Gure libertateari
deiot atzerrian dolü.

Dolüan dena etxen dago
dolüaren gordatzeko
Frantsesen presoner gaudeno
ez niz hebertik elkiko.

Kheira

Biarnoko bazter ederrak
gozaten ahal züntüke
Zü bezalako poetak
olerkigeia balüke.

Abdelkader

Bortü gora leihotik
asmatzen dit hürüanean
Eta kanpaña berdea
miresten hüllanean.

Frantziak hainbeste soro
hur, oihan, alor gozaten
Eta zer ari zaikü han
gure hariñen hazkatzen?

Kheira

Bena zerbaitek bozten nizü
bisita hanitx badüzü
Eta parte hon batek
Aljeriaz griña dizü.

Abdelkader

Hots oro har Pauez
oritzapen hona diket
Maleruski ez gütüzü
lüzaz heben zahartüren.

16. JELKALDIA**Abdelkader**

Lamoricièrek eman hitza
Aumalek baieztaturik,
Gobernuak jan du, eta
hemen gaitu zerraturik.

Kheira

Paseatzera zauri,
aire ona har ezazu.
Neurastenia beltz hori
baztertu behar dugu.

Abdelkader

Beti ber ingurua da,
baina berdin balio du.
Gure libertateari
diot atzerrian dolu.

Doluan dena etxen dago
doluaren gordetzeko.
Frantsesen preso gaudeno
ez naiz hemendik ilkiko.

Kheira

Biarnoko bazter ederrak
gozaten ahal zenituzke.
Zu bezalako poetak
olerki-gaia baluke.

Abdelkader

Bortü gora leihotik
asmatzen dut urrunean.
Eta kanpaña berdea
miresten hurranean.

Frantziak hainbeste soro
ur, oihan, alor gozaten.
Eta zer ari zaigu han
gure hareen hazkatzen?

Kheira

Baina zerbaitek pozten nau;
bisita anitz baduzu.
Eta parte on batek
Aljeriaz grina du.

Abdelkader

Hots, oro har, Pauez
oritzapen ona duket.
Maluruski ez gara
lüzaz hemen zahartuko.

zauri (jaugin): zatoz**etxen:** bere etxean**gaudeno:** gauden artean
ilki: irten**bortu:** mendi
gora: altu
kanpaña: landa-eremu
hurran: hurbil**maluruski:** zoritxarrez

Kheira

Eta bihozmin batekin
heben ützi beharko
Zentü zaizkün askaziak
eta lagün hon franko.

Kheira

Eta bihozmin batekin
hemen utzi beharko
zendu zaizkigun askaziak
eta lagun on franko.

askazi: ahaide

KANTA
Los hilhs d'Aimon

Nosauts qu'èm hilhs d'Aimon
 Deu gran duc de Dordonia
 Rei lon que ns' abandona
 Per ua traïson (bis)

A l'emperur de França,
 A tots que ns' a venuts
 Per mei d'assegurança,
 Shens armas qu'èm vienuts.

B'èm nosauts maluros!
 Quin triste sort per nos!

Si lo cosin Maugis
 Sabè la traïdoria,
 Dab son art de magia
 Be'ns vieneré secorir.

Ben seré en campanha
 Per vièner destrusir
 La cort de Carlesmanha
 Be'n sauré de morir.

B'èm nosauts maluros!
 Quin triste sort per nos!

Quan lo voste enemic
 N'ei pas ua canalha,
 Va franc tà la batalha,
 Com un brave soldat.

Mes, quan i a tronperia,
 Tà trahir son amic,
 Aquera porqueria
 Cau tuar d'arrepic.

Non siam maluros
 Victoria qu'ei ta nos.

KANTA

Nosauts qu'èm hilhs d'Aimon
 Deu gran duc de Dordonia
 Rei lon que ns' abandona
 Per ua traïson (bis)

A l'emperur de França,
 A tots que ns' a venuts
 Per mei d'assegurança,
 Shens armas qu'èm vienuts.

B'èm nosauts maluros!
 Quin triste sort per nos!

Si lo cosin Maugis
 Sabè la traïdoria,
 Dab son art de magia
 Be'ns vieneré secorir.

Ben seré en campanha
 Per vièner destrusir
 La cort de Carlesmanha
 Be'n sauré de morir.

B'èm nosauts maluros!
 Quin triste sort per nos!

Quan lo voste enemic
 N'ei pas ua canalha,
 Va franc tà la batalha,
 Com un brave soldat.

Mes, quan i a tronperia,
 Tà trahir son amic,
 Aquera porqueria
 Cau tuar d'arrepic.

Non siam maluros
 Victoria qu'ei ta nos.

17. JELKALDIA*Amboiseko jauregia, 1852an.***Louis Napoleon**

Aljeriako Vercingetorix
aitzindari noblea
Berri hon bat horra deizüt
deitzen da libertatea.

Abdelkader

Zure leialtarzünaz
eskerrak bihotzetik jauna
Ederki bete beitzü
aitzinekoek hitz emana.

Frantziaren eskualde hona
botzik dit hor ezagützen
Eta orai berean niz
horrekin adiskidetzen.

Louis Napoleon

Zütaz ez nizün düdarik
eta bietan bozten nüzü
Orai zure bizigia
hautatzen ahal dükezü.

Abdelkader

Türkia haüta nirozü
eta hantik fite Siria
Damasko hiria beita
müsülmanen itsasargia.

Eugenia

Türkialat joaite hori
aisatü behar deizügü
Eta Sirialat heltzea
hantik arin dükezü.

Abdelkader

Kiristien hona beti
gogoan dit edükiko
Aljeriako politika
osoki bazter ützi.

Louis Napoleon

Eta nik lürralde hori
nahi dizüt aljeriartü
Arabiar erresuma bat
Frantziaren parean sortü.

Abdelkader

Oi xede ausart ederra
bena lanak dütükezü
Kolon eta kolonelak
bühürritüko beitzaitzü.

17. JELKALDIA**Louis Napoleon**

Aljeriako Vercingetorix,
aitzindari noblea,
berri on bat horra dizut.
Deitzen da libertatea.

Abdelkader

Zure leialtasunaz
eskerrak bihotzetik, jauna,
ederki bete baituzu
aitzinekoek hitz emana.

Frantziaren eskualde ona
pozik dut hor ezagutzen.
Eta orain berean naiz
horrekin adiskidetzen.

Louis Napoleon

Zutaz ez nuen dudarik
eta bietan pozten naiz.
Orain zure bizigia
hautatzen ahal dukezu.

Abdelkader

Turkia hauta niro
eta handik fite Siria,
Damasko hiria baita
musulmanen itsasargia.

Eugenia

Turkiar at joate hori
aisatu behar dizugu,
Eta Siriar at heltzea
handik arin dukezu.

Abdelkader

Kristauen ona beti
gogoan dut edukiko.
Aljeriako politika
osoki bazter utziko.

Louis Napoleon

Eta nik lurralde hori
nahi dut aljeriartu;
arabiar erresuma bat
Frantziaren parean sortu.

Abdelkader

Oi, xede ausart ederra,
baina lanak dituzkezu,
kolono eta koronelak
bihurtuko baitzaizkizu.

horra izan: ekarri**bizigia:** bizileku**niro:** nezake
fite: arin**aisatu:** erraztu**dukezu:** izango duzu**dituzkezu:** izango dituzu**bihurtu:** aurre egin

Zohra

Hilik nintzan eta piztū niz
eskerrak zuri jauna
Zelūko Jinko handiak
benedika zitzala.

Frantziako presidentari
agur eta ohore
Ene otoitzetan beti
lekū bat badiket zure.

Zohra

Hilik nintzen, eta piztu naiz.
Eskerrak zuri, jauna.
Zeruko Jainko handiak
bedeinka zaitzala.

Frantziako presidenteari
agur eta ohore.
Ene otoitzetan beti
leku bat baduket zure.

duket: izango dut
zure: zuretzat

18. JELKALDIA*Damaskon.***Abdelkader**

Fededünaren borroka
tai gabeko djihad hori
Salbüespen handiz kanpo
ezpiritüz egin bedi.

Kheira

Etsaietan gogorrena
gure beitan gorderik da
Gure бүрүak ez maitez
kantükoa nola maita?

Abdelkader

Müsülman eta Kiristi
ezin gira egon etsai
Fedeaz ere Jinkoak
egin gütü denak anai.

Kheira

Maitarzünaz ahazterik
bizi gira kasik beti
Amodioa gure beitan
etxek dezagün kartsüki.

Abdelkader

Jinkoa maitarzün da
dena miserikordia
Hortan akort daude Jesüs
eta Mahomet handia.

Kheira

Jinkoa da ütürria
maitarzünaren sorgia
Hortarik edan dezagün
hürripaz goiko argia.

Abdelkader

Ene bizi ondarra
hortan eman behar dizüt
Irakurriz et(a) idatziz
Jinkoa beti kantatüz.

Kheira

Damas hiri jakintsüa
hortako lekü leiala
Eta ene lagüngo
hor düzü beti bezala.

Abdelkader

Ekiak izarrekilan
aipü Jaunaren loria
Olerki ederrenetan
gitean arren loria.

18. JELKALDIA**Abdelkader**

Fededunaren borroka,
tai gabeko jihad hori,
salbüespen handiz kanpo
espirituz egin bedi.

Kheira

Etsaietan gogorrena
gure baitan gorderik da.
Geure buruak ez maitez,
kantoikoa nola maita?

Abdelkader

Musulman eta kristau
ezin gara egon etsai.
Fedeaz ere Jainkoak
egin gaitu denak anaia.

Kheira

Maitasunaz ahazturik
bizi gara kasik beti.
Amodioa gure baitan
atxiki dezagun kartsuki.

Abdelkader

Jainkoa maitasun da,
dena miserikordia.
Horretan akort daude Jesus
eta Mahomet handia.

Kheira

Jainkoa da iturria,
maitasunaren sorgia.
Horretarik edan dezagun
hurrupaz goiko argia.

Abdelkader

Ene bizi hondarra
horretan eman behar dut.
Irakurriz eta idatziz,
Jainkoa beti kantatuz.

Kheira

Damasko hiri jakintsua,
horretako leku leiala.
Eta ene lagungoa
hor duzu beti bezala.

Abdelkader

Ekiak izarrekin
aipu Jaunaren loria.
Olerki ederrenetan
gaitezen, arren, loria.

tai gabeko: etengabeko**kantoi:** albo**akort:** ados**sorgia:** sorleku**lagungo:** laguntza**arren:** bada

KANTA
Damasko

Damasko hiri sainta,
Hermon bortü zolan
Hur biziek hazia,
baratzez joria.

Omeiaden
habia ezpiritüala
Non düzü leheneko
Kalifen loria?

Meskita zaharrear
saintüen arima
Beti bizirik dago
fededünen beitan.

Hor ohoratzen düe
haien orimena
Irakaspén zühürta
biltzen librüetan.

Arrüa xaharretan
zonbat ofiziale
Beren lanetan ari,
bai eta saltzale.

Janarien artean
edergailü finak
Zur, oihal, eltze, bitre,
metalezko tresnak.

Palmadian txirinta
goizik iratzarri
Azkorriaren pizle,
haren mezülari.

Ürzapalak eztiki
segida hartzen dü
Bakeari bertsetak
amoroski hortüz.

KANTA
Damasko

Damasko hiri santua,
Hermon bortu zolan.
Ur biziek hazia,
baratzez joria.

Omeiatarren
habia espirituala,
non duzu lehengo
kalifen loria?

Meskita zaharrear
santuen arima.
Beti bizirik dago
fededunen baitan.

Hor ohoratzen dute
haien oroimena.
Irakaspén zuhurra
biltzen liburuetan.

Kale zaharretan
zenbat ofizial.
Beren lanetan ari,
bai eta saltzaile.

Janarien artean
edergailu finak:
zur, oihal, eltze, beira,
metalezko tresnak.

Palmadian txirinta
goizik iratzarri,
azkorriaren pizle,
haren mezulari.

Usapalak eztiki
segida hartzen du,
bakeari bertsetak
amoroski onduz.

bortu: mendi
zola: barrenalde
baratze: lorategi

txirinta: txonta

azkorri: egunsenti

bertset: bertso
amoroski: maitasunez

19. JELKALDIA

Adoratzen den oro
Jinkoa da
eta hura dü adoratzen
adorazale orok.

Otoitze güziak
Jinko bakoitxari бүрүз doatza
nahiz itxúra desbardinez,

popülü bakoitxak
Jinkoaren hitza
bere jitearen arabera
üken beitü.

Nahi düanak Koran libürüa
Nahi düanak Thora
Beste batek Ebanjelioa
Nahi düanak meskita
bere Jaunaren otoizteko.

Nahi düanak sinagoga
Nahi düanak zeinüa eta kürütxea
Nahi düanak Kaaba,
horko harriari pot emaiteko.

Nahi düanak irüdiak
Nahi düanak idoloak

Nahi düanak erretiroa
edo bera bizitzea
Nahi düanak dantzagia txipi bat
gazelaren ballakatzeko.

Gabriela

Abdelkader xüxena
entzün gure Hatsa
Mündüan salatzen dik
Jinkoaren ürratsa.

Mikele

Mügarik gabe doak
elizen gainetik
Hik ere üsnatzen dük
fedez zügünetik.

Gabriela

Fanatikoak hartzen dik
Jinkoaren leküa
Konberti, bestela hil
hori dik joküa.

Mikele

Kiristia heriotik
arren begirezak
Aterpetüz kantüko
zibil et(a) apezak.

19. JELKALDIA

Adoratzen den oro
Jainkoa da,
eta hura du adoratzen
adoratzaile orok.

Otoitz guziak
Jainko bakoitzari buruz doaz
nahiz itxura desberdinez,

populu bakoitzak
Jainkoaren hitza
bere jitearen arabera
ukan baitu.

Nahi duenak, Koran liburua.
Nahi duenak, Tora.
Beste batek, Ebanjelioa.
Nahi duenak, meskita,
bere Jaunaren otoizteko.

Nahi duenak, sinagoga.
Nahi duenak, zeinua eta gurutzea.
Nahi duenak, Kaaba,
horko harriari pot emateko.

Nahi duenak, irudiak.
Nahi duenak idoloak.

Nahi duenak, erretiroa
edo bera bizitzea.
Nahi duenak, dantzagia txiki bat
gazelaren balakatzeko.

Gabriela

Abdelkader zuzena,
entzun gure hatsa.
Munduan salatzen duk
Jainkoaren urratsa.

Mikele

Mugarik gabe zoak
elizen gainetik.
Hik ere usnatzen duk
fedez zügünetik.

Gabriela

Fanatikoak hartzen dik
Jainkoaren lekua.
Konberti, bestela hil.
Hori duk jokoa.

Mikele

Kristaua heriotik,
arren, begira ezak,
aterpetuz kantoiko
zibil eta apezak.

bakoitz: bakar**jite:** izaera**bera:** bakarrik
dantzagia: dantzalekua
balakatu: laztandu**zugun:** bihozko**arren:** bada
kantoi: albo

20. JELKALDIA*Damaskon, 1860an.***Erasotzaileak**

Errumia kanporat
edo hilküttxalat
Errumia kanporat
edo hilküttxalat!

Abdelkader

Haurrideak zer a(r)i zide
bertan eküra ziteie
Jente hoik ez arren eho
bakean ützi bite!

Gureak bezala dira
gure aterpean daude
Eta hunki litzakeena
zinez etsai gүнүke.

Emirra

Jinkoak nahi üken bazüan
Herri bakoitx eginen güntüan
Bena berak eman deikünari
Fidel izatea dü izari.

Obra honetan lehenak izan
Hori da bakoitxaren peskizan
Behin harenganat behar dügü
Eta denez argitüko gütü.

20. JELKALDIA**Erasotzaileak**

Errumia kanporat
edo hilkutxarat.
Errumia kanporat
edo hilkutxarat!

Abdelkader

Haurrideak, zer ari zarete?
Bertan ekura zaitezte.
Jende horiek ez, arren, ero.
Bakean utzi bitez!

Gureak bezala dira,
gure aterpean daude.
Eta ongi litzakeena
zinez etsai gөnүke.

Emirra

Jainkoak nahi ukan bazuen,
herri bakoitz eginen gintuen,
baina berak eman digunari
fidel izatea du izari.

Obra onetan lehenak izan,
hori da bakoitzaren peskizan.
Behin harenganat behar dugu,
eta denez argituko gaitu.

errumi: kristau

bertan: bat-batean
ekuratu: gelditu
arren: mesedez
ero: hil

bakoitz: bakar**izari:** neurri**peskizan:** eskumenean

KANTA Musulmal eta kristau

Abedelkader

Güdariak ützülik
erbestetik, itzaletik
Xahar, emazte (e)ta haurrak
herrian kontsolatürik.

Bakea gaur jüntha honetan
kanta dezagün goratik
Algarrekin boztaria
müsülman eta Kiristi(a)k.

Lavigerie

Züek Allah, gük Jinkoa,
ez ote dügü ber Aita
Izenez bi, bat izanez,
krezale bakoitxa da.

Denak haurrak, denak maite,
büraso batek bezala
Bihotz batez dügün laüda
Jinko hona edo Allah!

Abdelkader

Harenganik dügü orok
bai argia, bai itzala
Bakean bizi gitean,
berak manatü bezala.

Obra honetan lehia,
güziak salba gitzala
Ber Aita beitügü orok,
Jinko Jauna edo Allah.

Lavigerie

Müsülman eta Kiristi,
algar ezagüt dezagün
Ezagützen ez dena da
leize zola bezain ülün.

Debrü tzar egiten dügü,
beraz etxekitzen hürrün
Asmakizünak ütirik,
dügün arren algar entzün.

Arrapika

Abrahamtarrak girade
hiru gisaz fededünak
Jüdio ala Kiristi,
eta bardin müsülmanak.

Bake xüxena dü behar
Irak Abrahamen amak
Gaineala libertatea
Siriak eta Palestinak.

KANTA

Abedelkader

Gudariak itzulirik
erbestetik, itzaletik,
zahar, emazte eta haurrak
herrian kontsolaturik.

Bakea gaur junta honetan
kanta dezagun goratik.
Elkarrekin bozkaria
musulman eta kristauak.

Lavigerie

Zuek Allah, guk Jainkoa,
ez ote dugu ber aita?
Izenez bi, bat izanez,
kreatzaile bakoitza da.

Denak haurrak, denak maite,
guraso batek bezala.
Bihotz batez dugun lauda
Jainko ona edo Allah!

Abdelkader

Harenganik dugu orok
bai argia, bai itzala.
Bakean bizi gaitezen,
berak manatu bezala.

Obra onetan lehia,
guztiak salba gaitzala,
ber aita baitugu orok,
Jainko Jauna edo Allah.

Lavigerie

Musulman eta kristau,
elkar ezagut dezagun.
Ezagutzen ez dena da
leize zola bezain ilun.

Deabruzar egiten dugu;
beraz, atxikitzen urrun.
Asmakizunak utzirik,
dugun, arren, elkar entzun.

Arrapika

Abrahamdarrak gara
hiru gisaz fededunak:
judu ala kristau,
eta berdin musulmanak.

Bake zuzena du behar
Irak Abrahamen amak.
Gainera libertatea
Siriak eta Palestinak.

bozkariatu: poztu

bakoitz: bakar

dugun: dezagun

manatu: agindu

zola: hondo

dugun: dezagun
arren: bada

21. JELKALDIA

*Abdelkaderren heriotza Damaskon,
1883an.*

Abdelkader

Goresmen zuri Jauna
mündüko nausia
Jinko güziz hon eta
ürrikalmentütsüa.

Azken sarri emaile
bakoitz ahaltsüa
Adoratzen zütügü
otoi hel zakigü.

Bide hoberenean
begira gitzatzü
Zure graziez bete
dütüzünen xendan.

Zü kexarazi gabe
dabiltzanen indan
Zü kexarazi gabe
dabiltzanen indan.

Eskerrak zuri Jauna
denen izenean
Otoi etxek itzatzü
bide xüxenean.

Benedika nezazü
eta zurekin har
Allah Jinko handia
zinez Allahu akbar!

Aingeruak

Zaude beti bakean
gure baratzean
Jaunaren itzalean
et(a) argi maitean.

Ikusiren dütüzü
maite dütüzünak
Askazi, adiskide
güdari lagünak.

Ikusiko halaber
Allahren profetak
Saintü, martir, jakintsü
artista, poetak.

Eta denez gainetik
zihauren modela
Ibn' Arabi argia
mistiko fidela.

21. JELKALDIA**Abdelkader**

Goresmen zuri, Jauna,
munduko nagusia,
Jainko guztiz on eta
urrikaltsua.

Azken sari-emaile
bakoitz ahaltsua,
adoratzen zaitugu.
Otoi, hel zakizkigu.

Bide hoberenean
begira gaitzazu
zure graziez bete
dituzunen xendan.

Zu kexarazi gabe
dabiltzanen intan.
Zu kexarazi gabe
dabiltzanen intan.

Eskerrak zuri, Jauna,
denen izenean.
Otoi, atxiki itzazu
bide zuzenean.

Bedeinka nazazu
eta zurekin har,
Allah jainko handia,
zinez Allahu akbar!

Aingeruak

Zaude beti bakean
gure baratzean,
Jaunaren itzalean
eta argi maitean.

Ikusiko dituzu
maite dituzunak:
askazi, adiskide
gudari lagunak.

Ikusiko halaber
Allahren profetak,
santu, martiri, jakintsu,
artista, poetak.

Eta denez gainetik
zuhauren modelo:
Ibn' Arabi argia,
mistiko fidela.

bakoitz: bakar**xenda:** bide**inta:** bide**baratze:** lorategi**askazi:** ahaide

22. JELKALDIA*Oran, 1919an.***Marie-Aimée**

Aljeriako lurra
gük dizügü hazten
Hebenko laborantxa
zühürki egarten.

Lana emaiten dügü
langile hanitxi
Gü heben ez bagina
ezin leizte bizi.

Marie France

Popülü auherra da
kondüta gabea
Frantses hoin-beltzak gira
denen zütabea.

Guri esker hor daude
zerbütxü güziak
Eskola, ospitale
bide, medeziak.

Marthe

Herri hau zer lizate
beregain egonez?
Beti aharran ziren
itsesak eginez.

Batarzünik ez lüke
gük eman ezean
Izenik ez izanik
ber gisan ez züan.

Djamila

Auher gira gisala
bena züen hazle
Alorrean mixkandi
etxen fatma merke.

Leila

Ekitoltze betean
lana zoin torpea
Itzalean zoin bortitz
errespetü gabea.

Mathilde

Bena maite zütüegü
leheneko gisan
Nahastekatü gabe
Frantziaren peskizan.

Familian bezala
handia gidari
Güzien bürüzagi
txipien zaindari.

22. JELKALDIA**Marie-Aimée**

Aljeriako lurra
guk dugu hazten.
Hemengo laborantxa
zuhurki egarten.

Lana ematen diegu
langile anitzi.
Gu hemen ez bagina
ezin litezke bizi.

Marie France

Populu alferra da,
funts gabea.
Frantses oin-beltzak gara
denen zutabea.

Guri esker hor daude
zerbitzu guztiak:
eskola, ospitale
bide, medikuak.

Marthe

Herri hau zer litzateke
beregain egonez?
Beti aharran ziren,
itxesak eginez.

Batasunik ez luke
guk eman ezean.
Izenik ez izanik,
ber gisan ez zuen.

Djamila

Alfer gara, gisala,
baina zuen hazle.
Alorrean mixkandi,
etxen neskame merke.

Leila

Ekitoltze betean
lana zein dorpea.
Itzalean zein bortitz,
errespetu gabea.

Mathilde

Baina maite zaituztegu
lehengo gisan:
nahastekatu gabe
Frantziaren peskizan.

Familian bezala,
handia gidari,
guztien buruzagi
txikien zaindari.

egari: baliatu**aharra:** liskar
itxes: hondamendi**gisala:** antza denez**mixkandi:** morroi
etxen: zuen etxean**ekitoltze:** eguzki-galda
dorpe: zail, gogor**nahastekatu:** nahasi
peskizan: eskumenean

23. JELKALDIA*Aljerren, 1922an.***Khaled**

Gerla handia egin dit
Frantziaren zerbützüko
Aljeriar hanitxek bardin
erresumaren zaintzeko.

Herritar honek bezala
odola isuri dügü
erritarren ber züzenak
ardietsi behar dütügü.

Gure galto garbia da
bardintarün osoa
Botz emaiteko züzena
bai eta haütetsigoa.

Millerand

Galtatzen balin badüzü
frantses herritargoa
Bazter ützi behar düzü
lege koranikoa.

Bena holaz poterea
gal genezake herrian
Frantzian ez builta batez
bena laster Aljerian.

Khaled

Ezin bagira frantsestü
guregain ützt gitzazüe
Gure herrian bederen
izan gitean libre.

Millerand

Nazionalisma berririk
ez arren asma zozoki
Separatisma Frantziak
debetatzen dü zorrozki.

Frantziak hanitx egin dü
Aljeriaren altxatzeko
Miseriatik elki zütüe
ama hona da züentako.

Khaled

Züekin etsitzeko da
esperantzarik ez dügü
Aljeriak bide berriak
asmatü beharko dütü.

23. JELKALDIA**Khaled**

Gerra handia egin dut
Frantziaren zerbitzuko.
Aljeriar anitzek bardin,
erresumaren zaintzeko.

Herritar onek bezala
odola isuri dugu.
Herritarren ber züzenak
erdietsi behar ditugu.

Gure galde garbia da
berdintasun osoa,
boz emaiteko züzena,
bai eta hautetsigoa.

Millerand

Galdatzen baldin baduzu
frantses herritargoa,
bazter ützi behar duzu
lege koranikoa.

Baina horrela boterea
gal genezake herrian.
Frantzian ez bulta batez,
baina laster Aljerian.

Khaled

Ezin bagara frantsestu,
gure gain utz gaitzazue,
gure herrian bederen
izan gaitezen libre.

Millerand

Nazionalismo berririk
ez, arren, asma zozoki.
Separatismoa Frantziak
debekatzen du zorrozki.

Frantziak anitz egin du
Aljeriaren altxatzeko.
Miseriatik ilki zaituzte;
ama ona da zuendako.

Khaled

Zuekin etsitzeko da;
esperantzarik ez dugu.
Aljeriak bide berriak
asmatu beharko ditu.

zuzen: eskubide
erdietsi: lortu

galde: eske

boz: boto
zuzen: eskubide

galdatu: eskatu
herritargo: herritartasun

bulta: une

arren: bada

ilki: atera

KANTA
Soldadua kexu

Zer ari gira heben,
astoak bezala
Gobernua gezurrez
honat bildü gütü.

Aljeria gisala
Frantziako dögüla
Eta denen honetan
behar begiratü.

Gaizki-egile zombait
omen badirade
Bazter nahasle gaizto,
inozent ehaile.

Herriaz eta sosaz
nausitü nahian
Haien aitzia ordena
zaintü behar nüan.

Hau ez dela gurea
bertan ageri dü
uropatik hain hürrün,
zinez arrotz gütü.

Hebenko popülüa,
gihaur ez bezala
Etxen dago segurki,
herritar fidela.

Ez da polizia lana,
gerla zikina da
Zibilen kontreakoa,
bazterrik gabea.

Masakrea, tortüra,
herrien hüstea
Noiz ürrentüko zaikü
hebenko haitada?

KANTA
Soldadua kexu

Zer ari gara hemen
astoak bezala?
Gobernuak gezurrez
honat bildu gaitu.

Aljeria, gisala,
Frantziako dugula,
eta denen onetan
behar begiratu.

Gaizkile zenbait
omen badira;
bazter nahasle gaizto,
inozente-eraila.

Herriaz eta sosaz
nagusitu nahian,
haien aitzia ordena
zaindu behar nuen.

Hau ez dela gurea
bertan ageri du.
Europatik hain urrun,
zinez arrotz gaitu.

Hemengo populua,
guhaur ez bezala.
Etxen dago segurki
herritar fidela.

Ez da polizia lana;
gera zikina da,
zibilen kontrakoa,
bazterrik gabea.

Masakrea, tortura,
herrien hustea.
Noiz urrenduko zaigu
hemengo haitada?

gisala: antza denez

begiratu: zaindu

aitzi: aurka

etxen: bere etxean

bazter: muga, etendura

urrendu: amaitu
haitada: jarduera

24. JELKALDIA*Paris, 1961ean.***Challe jenerala**

Gerla irabazi dügü
felagak hedailo dira
Aljeria frantsesetik
ez gitean erretira.

De Gaulle presidentea

Züen garaipen ederra
zinez estimatzen dizüt
Bena nik orai bakea
irabazi behar dizüt.

Jouhaud jenerala

Aljeria Frantzian
etxekei behar zünüke
Hortako armadaren
süstengüa bazünüke.

De Gaulle presidentea

Nik ere Aljeria
Frantzian etxek nezake
Han populü haboroa
egon balitz gure alt(h)e.

Zeller jenerala

Felagen lotsan bizi zen
bena libratü dizügü
Gure armen axolpean
frantsestü behar dizügü.

De Gaulle presidentea

Lehen gerlaren ondotik
frantsesten ahal günüan
Khaled emirra entzúnez
bena baztertü günüan.

Bigerren gerlatik landa
orano zerbait ahal zen
Bena Ferhat Abbas ere
baztertürük izan zen.

Müs halaber Messali Hadj
abertzale zühürri
Gero Ben Bella gogortü
eta berantegi da.

Aljeriako populüak
independentzia nahi dü
Eta beregain jartetik
ezin dirot epantxatü.

24. JELKALDIA**Challe jenerala**

Gerra irabazi dugu;
errebeldeak hedailo dira.
Aljeria frantsesetik
ez gaitezen erretira.

De Gaulle presidentea

Zuen garaipen ederra
zinez estimatzen dut,
baina nik orain bakea
irabazi behar dut.

Jouhaud jenerala

Aljeria Frantzian
atxiki behar zenuke.
Horretako, armadaren
sostengua bazenuke.

De Gaulle presidentea

Nik ere Aljeria
Frantzian atxiki nezake,
han populü haboroa
egon balitz gure alde.

Zeller jenerala

Errebeldeen lotsan bizi zen,
baina libratu dugu.
Gure armen aizolbean
frantsestu behar dugu.

De Gaulle presidentea

Lehen Gerraren ondotik
frantsesten ahal genuen
Khaled emirra entzunez,
baina baztertu genuen.

Bigarren Gerratik landa
oraino zerbait ahal zen,
baina Ferhat Abbas ere
baztertürük izan zen.

Mus, halaber, Messali Hadj
abertzale zuhurra.
Gero, Ben Bella gogortu,
eta berantegi da.

Aljeriako populuak
independentzia nahi du,
eta beregain jartetik
ezin dirot epantxatu.

hedailo: luze-luze lur gainean**haboroa:** gehiena**lotsa:** beldur**aizolbe:** babes**oraino:** oraindik**mus:** errefus**berant:** berandu**dirot:** dezaket
epantxatu: ekidin, eragotzi

KANTA
Bake zuzena

Bakea gaüzarik ederrena,
jüstizia lagün düalarik
Adostarzünik ezin da sortü
züzenik gabeko lurretik.

Gerlak ez dü okerrik xüxentzen,
errausten dü deüs eman gabe
Galtzaleak ez düke bakerik
arrabantxa bat hartü arte.

Gerlarik ez dügü jasan behar
zibilisazionen artean
Bide bat ediren daite beti,
xerkatüz algar entzütean.

Natüralezan ez da bakerik,
kabalek algar jaten düe
Eraiki behar da (e)ta lan hortan
bakoitzak aldia badüke.

Bakea gük egin behar dügü,
ez beita bera sortzen dena
Nahiküntetik jineko zaikü
denen arteko hitzarmena.

Planeta hau baizik ez beitügü,
mugarik ez dü jüstiziak
Denak behar bezala haz gitzan,
gida gitzala zühürtziak.

Bakea gaüzarik ederrena,
jüstizia lagün düalarik
Adostarzünik ezin da sortü
züzenik gabeko lurretik.

KANTA
Bake zuzena

Bakea, gauzarik ederrena,
jüstizia lagun duelarik.
Adostasunik ezin da sortu
zuzenik gabeko lurretik.

Gerrak ez du okerrik zuzentzen.
Errausten du, deus eman gabe.
Galtzaileak ez duke bakerik
errebantxa bat hartu arte.

Gerrarik ez dugu jasan behar
zibilizazioen artean.
Bide bat ediren daiteke beti,
xerkatuz elkar entzutean.

Naturalezan ez da bakerik.
Kabalek elkar jaten dute.
Eraiki behar da, eta lan horretan
bakoitzak aldia baduke.

Bakea gük egin behar dugu,
ez baita bera sortzen dena.
Nahikundetik jinen zaigu
denen arteko hitzarmena.

Planeta hau baizik ez baitugu,
mugarik ez du Justiziak.
Denak behar bezala haz gaitzan,
gida gaitzala zuhurtziak.

Bakea, gauzarik ederrena,
jüstizia lagun duelarik.
Adostasunik ezin da sortu
zuzenik gabeko lurretik.

zuzen: eskubide

duke: izango du

ediren: aurkitu
xerkatu: bilatu

kabala: abere

jín: etorri

zuzen: eskubide

25. JELKALDIA*Aljer, 1966an, Aljeriaren egunean.***Boumediene**

Hor zütügü Abdelkader
gure lehen herritarra
Aljeria piztū dūan
abertzale sūgarra.

Ereileak ez dakizū
nolako ūzta datean
Erein dūzū lūr hotzean
gūk eraiki lūr honean.

Fededūnek badakigū
beste bizia dūzūla
Bena zure hautser egūn
ikustate zor dūgūla.

Aberrian pausa zite
herritarren axolpean
Esker honen itzalean
historiaren hegalpean.

25. JELKALDIA**Boumediene**

Hor zaitugu, Abdelkader,
gure lehen herritarra,
Aljeria piztu duen
abertzale sūgarra.

Ereileak ez daki
nolako uzta datekeen.
Erein du lur hotzean,
guk eraiki lur onean.

Fededunek badakigu
beste bizia dela,
baina zure hautsei egun
ikustate zor diegula.

Aberrian pausa zaitez,
herritarren aizolbean,
esker onen itzalean,
historiaren hegalpean.

dateke: izango da**ikustate:** esker on**pausatu:** atseden hartu
aizolbe: babes

AZKENTA

Zaldün eder bat izan zen
Abdelkader güdaria
Horren güdükari esker
zügüntü zen Aljeria.

Gero bakean jarririk
frantses etsaiarekin
Ber gisan lagün egin zen
Kiristi mündüarekin.

Bi dohain jüntatzen dütü
batetik erresistentzia
Bestetik denenganako
behar den tolerantzia.

Bere idazlan ederrez
eta sineste jarraikiz
Arrazuari fedea
üztartü züan zühürki.

Erakusten dü xahüki
fatalismarik ez dela
Fedea (e)ta fanatismoa
bereizi behar direla.

Müsülman eta Kiristi
ez dira berez etsaiak
Alkarganako bideak
zabal ditzagün nasaiak.

Mündü hobe batetara
hortik igaran daiteke
Alkarlanez dügün bila
jüstiziareki bake.

Bi xede horik bürüan
ütziko zütüegü laster
Züen batzarri ederraz
har otoi mila bat esker.

AZKENTA

Zaldun eder bat izan zen
Abdelkader gudaria.
Horren gudukari esker
zuguntu zen Aljeria.

Gero, bakean jarririk
frantses etsaiarekin,
ber gisan lagun egin zen
kristau munduarekin.

Bi dohain juntatzen ditu:
batetik erresistentzia,
bestetik denenganako
behar den tolerantzia.

Bere idazlan ederrez,
eta sinesteei jarraikiz,
arrazoiari fedea
uztartu zion zuhurki.

Erakusten du xahuki
fatalismorik ez dela,
fedea eta fanatismoa
bereizi behar direla.

Musulman eta kristau
ez dira berez etsaiak.
Elkarganako bideak
zabal ditzagun nasaiak.

Mundu hobe batera
hortik iragan daiteke.
Elkarlanez dugun bila
Justiziarekin bake.

Bi xede horiek buruan
utziko zaituztegu laster.
Zuen batzarri ederraz
har, otoi, mila bat esker.

guduka: gerra
zuguntu: beregain egin

xahuki: garbiri

nasai: zabal

dugun: dezagun

batzarri: abegi

HERRITARREN KANTOREA

Mündü zabala, izarren aüzo,
ekia düzü pareko
Erdia ipar, bestea hego,
aize güzien meneko
Uste gabea, hats bat jeikitzen,
lürra emankor deneko
Esperantzarik nola ez üken
holaz hontan bizitzeko?

Arrapika

Hau da plazera, egün bildurik,
Herria gora kantari
Hegietarik, ürrüperatik,
aranatzez Xiberoari
Begiak argi, botzak ikara,
zabal besoak jeiari
Ohidürekin bizi emanez
ama Euskal Herriari.

Hanixen gisa, goxatü dügü
ama lürraren altzoa
Junpatzez ere, goizik maitatü
sorleküaren mintzoa
Izate batez besarkatürük,
irus hazirik gogoa
Popülü bat da bere lürretan
libertateaz mengoa.

Mündüan zehar, azkar entzüten
popülüaren oldarra
Heltzen delarik zentzü gabeko
mehatxüaren sü garra
Zaintüz herria, norek ez liro
züenez higa indarra
Askatasünak bezti artino
betiko bakez biharra.

HERRITARREN KANTOREA

Mundu zabala, izarren auzo,
ekia du pareko.
Erdia ipar, bestea hego,
haize guztien mendeko.
Ustekabea, hats bat jaikitzen,
lürra emankor deneko.
Esperantzarik nola ez ukan
horrela honetan bizitzeko?

Arrapika

Hau da plazera egun bildurik
herria gora kantari,
hegietarik, urruperatik,
aranatzez Xiberoari.
Begiak argi, bozak ikara,
zabal besoak jaiari.
Ohiturekin bizi emanez
ama Euskal Herriari.

Anitzen gisa, gozatu dugu
ama lurraren altzoa.
Junpatzez ere, goizik maitatu
sorlekuaren mintzoa.
Izate batez besarkaturik,
uros hazirik gogoa.
Populu bat da bere lurretan
libertateaz mengoa.

Munduan zehar, azkar entzuten
populuaren oldarra,
heltzen delarik zentzugabeko
mehatxuaren sugarra.
Zainduz herria, nor ez liro
zuzenez higa indarra,
askatasunak bezti artio
betiko bakez biharra?

gora: ozenki
urrupera: lur lau
aranatu: ozenki agur egin

junpatu: kulunkatu
(junpatzez: sehaskatik)

uros: zoriontsu

mengoa: falta

liro: lezake
higatu: gastatu, ahitu
beztitu: jantzi, estali
biharra: biharko eguna